



Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la
Actividad Física y del Deporte

GRADU AMAIERAKO LANA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN IKASLEEN POSTURA ETA BIZKARREKO MINA.

EGILEA: Legorburu Fernandez, Irati Iona

ZUZENDARIA: Gomendio Alberdi, Margari

IKASTURTEA: 2014-2015

DEIALDIA: Lehenengoa

LABURPENA

Lan honen helburua egoera posturala eta bizkarreko minaren pertzepzioaren azterketa sakonagoa egitea da. Bizkarreko min zein desoreka posturalek gaur egun duten nagusitasuna ikusita, egoera azaleratu eta honen kausak zeintzuk diren ezagutu nahi dira. Honetarako UPV-EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko ikasleen (n=25) postura-aldaketak zein bizkarreko minaren magnitudea eta pertzepzioa nolakoak diren aztertuko ditugu.

Egindako analisia longitudinala izan da. Ikasketetan sartu zirenean lehenengo neurketa egin zitzaien eta ikasketen azkeneko urtean azken neurketa. QPS-200 Shekel Posture Analyzer erremintari esker pisuaren banaketaren datu numerikoak lortu ditugu. Bizkarreko mina eta pertzepzioari dagozkienez, NASS osasun galdetegia erabili izan da.

Posturaren neurketek erakutsi dutenez, bariazio handiena pertsonen artekoa da. Heterogeneotasun handiena aurre-atze banaketak azaleratu duelarik, gehienbat lehenengo neurketan (2012: DS=9,33 begiak zabalik eta DS=9,99 begiak itxita; 2014: DS=7,37 begiak zabalik eta DS=7,94 begiak itxita). Aurkitu den efektu signifikatibo bakarra ($p<0.05$), bestalde, neurketa data da. Bizkarreko minaren pertzepzioak gora egin du urteak aurrera joan ahala (subjektuen %64 2012an; subjektuen %72 2014an) baina egunerokotasunean minak sortzen dituen zailtasunak behera egin du (%28 2012an; %20 2014an).

HITZ GAKOAK: postura, ongizatea, gorputz jarrera, bizkarreko mina, osasuna.

RESUMEN

A través de este estudio se quiere conocer más a fondo la situación de la postura y la percepción del dolor de espalda. Vista la prevalencia que tienen hoy en día este tipo de desórdenes, se busca presentar la situación y conocer las causas que nos llevan a ella. Para esto, analizaremos tanto los cambios de postura como el dolor de espalda y su percepción en estudiantes (n=25) de la Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte de la UPV-EHU.

Se ha realizado un análisis longitudinal de dos mediciones: la primera al entrar en la facultad y la segunda el último curso de dichos estudios. Para la distribución de peso se ha utilizado la plataforma medidora de postura QPS-200 Shekel Posture Analyzer, que nos da datos numéricos de los parámetros a medir. Para conocer el dolor de espalda y su percepción, se han pasado los cuestionarios de salud NASS.

Las mediciones posturales han detectado mayor variación entre personas, siendo mayor la heterogeneidad de la distribución antero-posterior en la primera medición (DS=9,33 ojos abiertos y DS=9,99 ojos cerrados en 2012; DS=7,37 ojos abiertos y DS=7,94 ojos cerrados en 2014). Por otro lado, el único efecto significativo ($p < 0,05$) es la fecha de medición. En cuanto a la percepción del dolor de espalda, ha ido en aumento (%64 de los sujetos en 2012; %72 de los sujetos en 2014) pero la cantidad de sujetos que sufren dificultades en la vida diaria ha disminuido (%28 en 2012; %20 en 2014).

PALABRAS CLAVE: postura, bienestar, actitud postural, dolor de espalda, salud.

ABSTRACT

The aim of this study is to analyze the body posture and back pain perception. Having regard to the prevalence this kind of disorders have nowadays, it seeks to present the situation and show the causes that lead to it. For that, we will both analyze changes in posture and back pain and its perception in 25 students from the Faculty of Physical Activity and Sports Sciences (UPV-EHU).

We have performed a longitudinal analysis of two measurements: the first was done when they entered the faculty and the second at the last year of their studies. The QPS-200 Shekel Posture Analyzer scales was used to obtain numerical data about weight distribution. For back pain and its perception, the subjects filled in the NASS health questionnaire.

Postural measurements detected higher variation between individuals, with a greater heterogeneity of the antero-posterior distribution in the first measurement (DS=9,33 eyes open and DS=9,99 eyes closed in 2012; DS=7,37 eyes open and

DS=7,94 eyes closed in 2014). On the other hand, the only significant effect ($p < 0.05$) is the measurement date. The perception of pain has increased (%64 of individuals in 2012; %72 of individuals in 2014) but the number of subjects suffering difficulties in daily life has declined (%28 in 2012; %20 in 2014).

KEYWORDS: posture, wellness, postural attitude, back pain, health.

AURKIBIDEA

Orrialdea

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	3
3. GAIAREN EGOERA ETA OINARRI TEORIKOAK	4
3.1. Posturologia	4
3.2. Osasun posturala	7
3.3. Postura zaintzearen aldeko metodoak	8
3.3.1 Mézières metodoa: Françoise Mézières	10
3.3.2 Godelieve Struyf	11
3.3.3 Eutonia: Gerda Alexander	12
3.3.4 Feldenkrais metodoa: Moshe Feldenkrais	13
3.3.5 Rolfing: Ida Rolf	14
3.4. Bizkarreko mina	14
3.5. Gizakiaren gorputz jarrera egoki eta desegokiak	16
4. MATERIALA ETA METODOAK	19
4.1 SUBJEKTUAK	19
4.2. SHEKEL POSTURE ANALYZER	19
4.3 NASS GALDETEGIA	20
4.4 SAS PAKETEA	20

5. EMAITZAK	21
5.1 POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA	21
5.2. JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKASLEEN BIZKARREKO MINAREN PERTZEPZIOA	24
5.3 FAKULTATEKO IKASLEEN POSTURAREN IKERKETA (1. ETA 4. MAILEN ARTEKO KONPARAKETA)	26
5.3.1 Balore aritmetikoak	26
5.3.2 Analisi multifaktoriala	27
6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	30
7. BIBLIOGRAFIA	33
8. ERANSKINAK: NASS galdetegia	37

TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

1.	Taula: <i>EESEn</i> jasotako osasun arazo kronikoak	7
2.	Taula: <i>ENSEn</i> jasotako osasun arazo kronikoak	8
3.	Taula: laginaren ezaugarriak	15
4.	Taula: bizkarreko mina eta honek eragindako egunerokotasunean zailtasunak	15
5.	Taula: laginaren ezaugarriak	21
6.	Taula: bizkarreko minaren datuak	24
7.	Taula: eguneroko bizitzan minak sortzen dituen zailtasunen datuak	25
8.	Taula: osasunaren pertzepzioaren datuak	25
9.	Taula: QPS-200 SPA-n jasotako datuen bilketa	27
10.	Taula: ezker-eskuin desbideraketaren bariantza analisisa (ANOVA)	28
11.	Taula: aurre-atze desbideraketaren bariantza analisisa (ANOVA)	28
12.	Taula: kirol praktikaren araberako praktikatzaile kopurua	29

LABURDURAK

STP	Sistema toniko posturala
ATM	Artikulazio tenporomandibularra
JFKZF	Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
NASS	North American Spine Society
HTA	Hipertentsio arteriala
EESE	Europako Osasunaren Inkesta
ENSE	Estatuko Osasun Inkesta
QPS-200 SPA	Shekel Posture Analyzer

1. SARRERA

Gaiak interes pertsonal, akademiko zein sozial ezberdinak piztu izanaz gain, egungo egoera errealean murgildu eta hobekuntzak ekartzeko aukera ematen du. Urteetan zehar txapelketa mailako kirolean sartuta egon naizenez gero, norberaren gorputzaren ezaguerak eta kontzientziak postura patologiko edo mingarriak ezabatzerako orduan hartzen duen garrantziaz bete-betean ohartu naiz.

Honen bidez kirolariak jasaten dituzten desoreka posturalak zein bizkarreko minaren pertzepzioa analizatu nahi da, kirol praktikak eragin ditzakeen asaldurak dauden ikusteko, populazio orokorrean gertatzen denaren isla izanik. Hau dela eta, UPV-EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko (JFKZF aurrerantzean) ikasleen postura-aldaketak zein bizkarreko minaren magnitudea eta pertzepzioa ezagutu nahi dira, graduko lehen urtetik azkenekora. Honekin batera Kirol praktika motak zein generoak posturan duen eragina nolakoa den aztertuko dugu.

Maila altuko kirolari ohi moduan, posturak gorputz kontzientzia zein ongizatearekin duen erlazioari garrantzi handia ematen diot. Kirolariaren osasun maila integrala hobetzea lortu genezake postura lana gertuagotik eginda; praktika jakinerako erantzun hobekak jasoaz. Kirol uztera iritsi baino lehen kirolean uztartu beharko genuke horrelako zaintza.

Gauzak honela, lan hau urteetako ibilbide baten isla dugu, eta ez soilik kirol munduan murgilduta egon naizen urteena. 2012. urtean JFKZFko Portaera Motor Laborategian hasi nintzen kolaboratzaile gisa, beraz, momentu honi ere gaiarekiko izan dudana interes eta atxikimendua zor diot.

Garai hartan ikerketa lan batean murgildu nintzen, gerora Madrileko *European Congress of Adapted Physical Activity* kongresuan aurkeztua izan dena. Ikerketa honetan, *Competencia motriz y performance en deportistas de goalball* izenekoak, goalballeko jokalarien gorputz kontzientzia eta postura errendimenduari lotzen zen, baita Eutoniaren oinarrietatik abiatzen zen **Propiozepzio Programa Motor** baten ondorengo bilakaera ikusi ere.

Jarraian azaltzen dugun ikerketan JFKZFko 25 ikaslek hartu dute parte. QPS-200 Shekel Posture Analyzer (QPS-200 SPA aurrerantzean) plataforman pisuaren

banaketaren datuak jaso dira, baita bizkarreko minaren zein ohituren ingurukoak ere. Azken honetarako *American Academy of Orthopaedic Surgeons/ North American Spine Society-k* (NASS aurrerantzean) diseinatutako Bizkarrezur Lunbarraren Galdetegia baliatu da (ikusi eranskinak).

2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Lan honek jarraian azaltzen diren helburuak betetzea nahiko genuke:

- JFKZFko ikasleen postura-aldaketak ezagutzea, graduako lehen urtetik azkenekora.
- JFKZFko ikasleen bizkarreko minaren magnitudea eta pertzepzioa ezagutzea.
- Kirol praktika motak posturan duen eragina nolakoa den aztertzea.
- Generoaren aldetik posturan aldeak dauden ezagutzea.

Gure lana hurrengo **hipotesi nagusitik** abiatzen da: goi zein erdi mailako kirolariek posturaren asaldura zein bizkarrezurreko gaitz ugari jasaten dituzte. Honetatik abiatuta, hurrengo hipotesiak azaltzen dira:

- Posturaren berregokitze batek ongizatearen hobekuntza zein ondoriozko bizi kalitatean eragin positiboa dakartza.
- Kirol praktikak desoreka posturalak ekar litzake.
- Kirolariek minaren atalase altuago dute; hobeto jasaten dituzte minak.
- Gaur egun ez zaio behar beste garrantzi ematen osasun posturalaren zainketari.
- Postura egoki batek bizi kalitatean ondorio positiboak dakartza.

3. GAIAREN EGOERA ETA OINARRI TEORIKOAK

3.1. Postura eta posturologia

Postura hitza etimologikoki aztertuta latineko **positur**atik datorrela ziurtatu dezakegu; pertsona, animalia edo gauza bat kokatuta dagoen egoera, akzio, modu edo figura hain zuzen (Llanos Alcázar eta Viladot Pericé, 1996).

Posturaren definizioa ematerako orduan, autore ezberdinen hitzetan topa dezakegu erantzuna. Llanos Alcázar eta Viladot Pericé (1996), adibidez, gorputzaren atal desberdinek elkarrekiko duten **erlazioari** deitzen diote. Ahalmen fisiko batzuen pean, gizaki bakoitzaren posizioari berezko ezaugarriak ematen dizkio, izan ere, postura ez da posizio soilaren aldaketarekin eraldatzen baizik eta **jarrerarekin** ere.

Edozein modutan, postura gure eguneroko eginbeharrak burutzea baimentzen digun **sinergia sistema** bezala onartu behar dugu. Motrizitatea behar bezala garatzeko gorputz kontzientzia oso garrantzitsua da (Gagey eta Weber, 2001).

Askotan, aldaketa minimo batek patologia handia ekar lezake. Gorputz kontzientzia eta postura lanaren bitartez, gure izakiari lokomozio zein orno sistemaren alor anitzei kalte egiten dien **faktore mekanikoa** hobetu dezakegu; hobeto ulertzen ditugu honen inguruko patologiak eta zuzenketa bat egin dezakegu. **Oreka dinamikoaren** bilaketa eginik sistemaren egoera funtzional optimoa lortuko dugu (Montero Parrilla, Semykina eta da Conceição Morais Chipombela, 2005).


Pertsona bat kontrol fineko sistema bati esker mantentzen da zutik automatikoki. Sistema honek gorputzaren posizioak ingurunearekiko duen bariazio minimoa hautematen du eta **exokaptore** (begia, bestibulua, oina...) zein **endokaptoreak** (rakis muskuluen propiozepzioa, muskulu okulomotoreak, ATM...) erabiltzen ditu; **oreka ortostatikoa** osatzen dutenak (Montero Parrilla, Semykina eta da Conceição Morais Chipombela, 2005).

Oreka ortostatikoaren eta eguneroko jardueren erregulazioa **sistema toniko posturalaren** (STP aurrerantzean) esku dago. Gizakion STPa aztertzen duen zientziaren espezialitatea **Posturologia** deitua da (Montero Parrilla, Semykina eta da Conceição Morais Chipombela, 2005).

Beste hitz batzuetan esanda, posturologiak gizakiaren oreka aztertzen du, zutikako posizio estatikoan eta bere ingurunearekin erlazioan. Disziplina berri bat dugu, **sistema postural finaren** kontzeptua garatzen duena (Gagey eta Weber, 2001).

Dakarren berritasuna **multidisziplinan** topatzen dugu, izan ere, Mediku, Neurologo, Okulista, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren aditu, Dentista, Fisioterapeuta eta Eskuzko Terapien (RPG, osteopatia...) espezialistengan pizten du jakinmina (Loroño A., 2004).

Aipatu den moduan, STPak hiru kanpoko sarrera edo exokaptore ditu: begia, bestibulua eta oina. Hiru exokaptore hauek munduarekin kontaktu zuzenean daude eta gorputzak ingurunearekiko dituen mugimenduak jasotzen dituzte. Hau dela eta, **posturaren egonkortze lana** hiru hauen esku dago. Hauetariko batek funtzionaltasun arazoren bat izateak posturan zuzeneko eragina izango du (Loroño, 2004).



1. Irudia: STParen funtzionamendua. Iturria: Loroño, 2004

Gizakia zutik nola mantentzen denaren ikasketak duela ehun urte baino gehiago hasi ziren. Hainbat ikerlari joan dira pixkanaka galderari argia ematen: Rombergek

begia eta beheko atalen erlazioa ikertzen du, Flourensek bestibulua eta posturaren artekoa, Longetek muskulatura parabertebralaren propiozepzioa, Cyonek okulomotrizitatea... Gutxinaka STParen sarrerak kontrolatuz **tonu muskularra** manipulatzeko ikasi da (Gagey eta Weber, 2001).

Lehen **posturografia** eskola Berlinen sortu zen 1890an Vierordten eskutik. Aurrerago, 1955ean, Pariseko Ste-Anneko Hospitaleko Posturografia Laborategiko Baron Doktoreak bere tesia aurkeztu zuen. Hartan, muskulu okulomotoreek jarrera posturalean duten inportantzia aritzen zen (Loroño A., 2004).

Bertigo sentazioek motibatuta eraman zuen aurrera ikerketa. Arrain eta arratoietan interbentzio kirurgikoak egin ondoren **muskulu okulomotor eta posturaren** arteko erlazioa ezarri zuen. Ebakuntzen bitartez izakien muskulu okulomotoreak asaldatu zituen. Honen ondoren arrainek borobilean egiten zuten igeri eta arratoiek ezin zuten lerro zuzenean ibili. Ezarritako bistako erlazioaz haratago, 4^otik beherako asaldurek muskulatura axialean eragin nabariagoa zutela ikusi zuen 4^otik gorako asaldurek kalte ikusgairik sortzen ez zuten bitartean, aipatutako mailan. Baieztapen honek posturaren osagaietan gertatutako desoreka minimo batek asaldura posturala ekar lezakela iradokitzen du (Loroño A., 2004).

Postura eta **gorputz kontzientzia** lanaren bitartez, gure izakiari, sistema lokomotor eta orno sistemaren hainbeste eremu kaltetzen dituen faktore mekanikoa zuzentzea baimentzen diogu. Hain ezberdinak diren patologiak hobeto ulertzen ditugu eta tradiziozko medikuntza prozesuen alternatiba bat proposatu dezakegu. Oreak dinamikoa bilatuz sistemaren **puntako egoera funtzionala** lortuko dugu. Gauzak horrela, aldaketa posturalekiko sistema eta prozesuen elkarrekintzak ezagutzea ezinbestekoa dugu prebentzio arloan (Montero Parrilla, Semykina eta da Conceição Morais Chipombela, 2005).

3.2. Osasun posturala

Egun, **gorputzaren kulturaren balorea** bizi den momentu batean aurkitzen ditugu geure buruak. Fisiko zein fisiologikoki egoera hobereanean eduki nahi dugu gure gorputza. Dietak, kirola, jarduera fisiko modu berriak, bizi ohituren aldaketa... Hainbat metodo topatzen ditugu bidean lagungarri zaizkigunak.

Azken urteetan arazo posturalen inguruko **kezka maila baxuak**, gaia gaur egun modan egotera eraman gaitu. Altzari ergonomikoekiko, ikasleentzako motxila astunekiko zein maiz hartzen ditugun gorputz jarrerekiko kezkek gaiaren **berpizkundera** ekarri dute (Pazos & Aragunde, 2000).

Europako Osasunaren Inkesta (EESE aurrerantzean) Europako 18 herrialdetan burutzen den inkesta dugu. Bertan, herrialdez herrialde **osasunaren inguruko informazioa** biltzen da (bizi kalitatea, gaixotasun kronikoak, egunerokotasuneko jarduerak burutzeko zailtasunak, medikamentuen erabilera, ariketa fisikoa, alkohol zein tabakoaren kontsumoa e.a.) (Instituto Nacional de Estadística, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saila, 2010).

Espainiar Estatuan 2009an jaso zen azkena 2010ean publikatua izan zena. Honen arabera, 16 urtetik gorako biztanlerian diagnostikatutako **gaixotasun kroniko nagusienak** (hipertentsio arterialaren atzetik; %17,2) lunbalgia (%16,3) eta zerbikalgiak (%14,2) dira. Beste modu batera esanda, medikuek diagnostikatzen dituzten gaitz kronikoen artean %30,5a bizkarreko gaixotasunek betetzen dute (ikusi 1. Taula). Bestalde, laginaren %10,5ak inkesta bete aurreko lau asteetan zehar min edo molestia fisiko larria pairatu duela azalerazen da.

Urtea	Lehen kausa eta portzentajea	Bigarren kausa eta portzentajea	Hirugarren kausa eta portzentajea	Laugarren kausa eta portzentajea	Bosgarren kausa eta portzentajea
2009	HTA %17,2	Lunbalgia %16,3	Zerbikalgia %14,2	Alergia kronikoa %12,0	Migraña %8,6

1. Taula: *EESE*n jasotako osasun arazo kronikoak. Iturria: norberak egina.

Honetaz aparte, Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministeritzarekin batera *Estatuko Osasun Inkestak (ENSE aurrerantzean)*, eramaten ditu aurrera. Honen helburu nagusia 2011tik 2012ra jasotako datuek aipatutako **gaitz kronikoen nagusitasuna** agerian utzi zuten. Izan ere, jasotako datuen arabera, Espainiako 15 urtetik gorako populazioaren %18,6ak lunbalgia kronikoak pairatzen ditu (gaixotasun kronikoen artean lehena) eta %15,9ak zerbikalgiak:

Urtea	Lehen kausa eta portzentajea	Bigarren kausa eta portzentajea	Hirugarren kausa eta portzentajea	Laugarren kausa eta portzentajea	Bosgarren kausa eta portzentajea
2011-2012	Lunbalgia %18,6	HTA %18,5	Artrosia, artritria, reumatismoa %18,3	Hiperkolesterolemia %16,4	Zerbikalgia %15,9

2. Taula: *ENSEn* jasotako osasun arazo kronikoak. Iturria: norberak egina.

Iturri desberdinek ziurtatuta, bizkarreko minak populazioaren %30-35ari eragiten diola ikus dezakegu. Kasu askotan **posturaren zainketa** bidez egin ahal zaie aurre bizkarrean suertatzen diren gaitzei.

3.3. Postura zaintzearen aldeko metodoak

“Gure gorputza gu geu gara. Gure errealitate bakarra da. Ez die gure inteligentzia, gure arima, gure sentimenduei kontra egiten. Barne hartu eta arbitratzen ditu. Honela, norbere gorputzaren kontzientzia hartzea izaki propioari osotasunean bidea ematea da... izan ere, gorputza, arima, psikismo, eta fisikoa (indar eta ahultasuna barne) ez dute izakiaren dualismoa adierazten, bere unitatea baizik.” (Bertherat T., 1976, 13. or.)

Duela ez hainbeste gizona eta bere gorputzaren arteko erlazioa, Mendebaldean, borondateak markatutakoa zen. Gimnasia gordinak bideratutako jarrera zurrunean oinarritzen zen. Gaur egun, aldiz, kontrako korranteak agertzen hasi dira eta, estresari aurre egiteko asmoaren pean, **erlaxazio muskularraren** aldeko autoreak anizten ari dira. Hamarkada batzuk atzera enfoke berri hau marrazten hasi zen, gorputzaren lana eraldatu duena, bai kirol prestakuntzan bai terapian (Freres eta Mairlot, 2000).

Kirol praktiken artean askok kontrakzio muskularrak eragiten dituzte, baita **postura konpentsatorioak** eratu ere. Adibiderik onena burua makurtzen duen txirrindularia dugu. Begirada behera eta bizkarra ornoarteko flexioak eragindako "C" itxuran edukita, bizkarreko muskuluei lana eragiten die. Muskulu hauek jada gehiegizko kontrakzioan daude, egunerokotasuneko jardueretan inplikatzeko baitira. Bitartean sabelaldeko muskulatura erlaxatuta dago. Ia ia salbuespenik gabe, kirolariak gorputzari forma ematen diote kontzientzia partziala baino ez dutelarik. Muskuluak eta haien antagonisten arteko **interdependentzia** ulertzen ez dutenez gero, indarra edozein tokitik ateratzen dute min eta lesioak sortuz maiz (Bertherat eta Bernstein 1976). Hau dela eta, artikulazioak malgutzea eta gogortutako muskuluak luzatzea arau absolutuena dugu.

Estresak eta mugimendu faltak, bestalde, **gorputzaren harmonia falta** betea eratzen dute; muskuluak uzkuertzen dira eta artikulazioak zapaldu. Artikulazio arteko lerroa mozten doa eta progresiboki zurruntzen da. Artikulazioaren ohiko jokoa egiteari uzten zaio eta haren degenerazioa agertzen da. Kartilagoak loditasuna galtzen du guztiz desagertzen den arte. Hau, artrosiaren mekanismoen artean klasikoena da, desgaste mekanikoarekin batera, artrosiaren kausarik ohikoena izanik (Freres eta Mairlot, 2000).

Postura desegoki baten ondorioz patologia anitz sor ditzakegu. Artrosia guztien artean adibide bat baino ez dugu. Kontrakzioaren ondoren erlaxazio fasea heltzen ez bada, gure egitura anatomikoek jasaten duten estresa oso handia da. Hemen aurkitzen dugu, beraz, mugimenduaren ekonomiaren bilaketaren garrantzia (Freres eta Mairlot, 2000).

Asaldatutako sistema posturala zuzenduz, profesionalak, minaren kausa mekanikoaren gain egiten du eragina modu eraginkor batean. Honen inguruan autore anitz eta metodo desberdinak agertu izan dira, guztiak gorputzaren lana **modu globalean** hartzen dutela oinarritzat:

3.3.1. Mézières metodoa: Françoise Mézières

1948an bidea ireki zioten lehen artikulak argitaratu zituen Frantzian bizi zen Hanoïn jaiotako emakume honek. Bere metodoa **aparatu lokomotorren gaitz kronikoetara** zuzendu zuen funtsean, aurreikuspen negatiboak zituztenei batik-bat (Busquet L., 1992).

Atzekaldeko muskulaturaren mozketa ebidentzian ipini zuen. Honen kausa, funtsean, etengabeko **jarduera toniko lokalizatua** dela esaten zuen (lokalizatutako edozein kontrakzio muskularrek muskulatura sinergikoan tentsioa eragiten baitu) (Souchard P.E.,1983).

Modu honetan, sakoneko eta azaleko muskulaturen artean gertatzen dena ulertu genezake:

1. Azaleko muskulatura **etengabe lanean** ari denean moztu egiten da, sakoneko muskulaturaren lana galaraziz (tonu posturalaren doiketa, hain zuzen).
2. Aipatutako talde muskularrak sakonekoaren eginbeharra bere gain hartu eta berezkoa duen gorputzaren estentsore **funtzioa galdu** egiten du.
3. Ondorio moduan, mugimendu antagonistaren bitarteko **luzaketaren mugatzaile** bilakatzen da.
4. Mozketa permanente hau **kontraktura** bat sortzen du eta **fibrosi muskularra** lagundu ere (muskuluen malgutasun gaitasuna mugatzen duena).

Metodo honek, praktikan, **luzaketa postura** batzuk azaltzen ditu, probetxugarriak izateko hiru oinarritzko arau bete behar dituztenak:

1. Minaren atalamera heldu gabe, **etengabeko tentsioa** eragitea. Postura mantentzen den bitartean ez dago erlaxaziorik.
2. **Konpentsazioak** teknika on baten bidez, ahal den heinean, **galaraztea**.
3. Ahalik eta **denbora** gehienez mantentzea.


(Mézières, 1984)

3.3.2 Godelieve Struyf

Influentzia anitzek bustitako ikerketak aurrera eramane ondoren segmentuen forma, keinuaren kalitatea eta gizakiaren egitura psikikoen arteko korrelazioan egiten du enfasia. **Interakzio** hau etengabekoa da. Kalitatea eta prezisioa norberaren intentzioaren, gaitasun funtzionalen era morfologiaren arabekoak dira. Modu berean, mugimenduen arteko koordinazioak gorputzaren eurastrutura eta forman benetako azterna uzten du (Freres eta Mairlot, 2000).

Françoise Mézièresekiko bide paraleloa egin duela esan genezake. Mekanika artikularrean eta muskulu-aponeurotikoean egindako lan ugariaren artean aipatutako autorearen metodoaren inguruan artikulua bat ere idatzi zuelarik. Mézièresen atzeko katearen mailan, Struyfek, **bost muskulu familia** proposatzen ditu (haien artean bat bikoitza delarik):

1. Atze-erdiko katea (posteromediana): **PM**
2. Aurre-erdiko katea (anteromediana): **AM**
3. Atze-alboko katea (posterolateral): **PL**
4. Aurre-alboko katea (anterolateral): **AL**
5. Atze-aurreko eta aurre-atzeko katea (posteroanterior y anteroposterior): **PA-AP**



2. irudia: muskulu familiak. Iturria: Freres eta Mairlot, 2000

3.3.3 Eutonia: Gerda Alexander

1959an Gerda Alexanderen eskutik jaiotako **autogarapeneko gorputz disziplina** honek helburu terapeutiko eta hezkuntza helburuak ditu. Gorputza izatearen oinarritzat eta esperientziaren erdigunetzat jotzen du. Etimologikoki tonu egoki edo justua esan nahi du (grekotik datorren “eu”: egoki, justua, harmoniatsua eta “tonus”: tonua, tentsioa) (Hemsey de Gainza, 1998).

Eutonian gorputza jakintzaren oinarritzat jotzen da. Berarekin izaten ditugu bizitza esperientzia guztiak. Horregatik, ondo bizitzen eta osasuna zaintzen irakastea Eutoniaren oinarri nagusietako bat da. **Autoikasketa** eta sentsibilitatearen garapena osotasunean bizitzeko bidetzat jotzen da. Modu honetan, pertsona, bere baitan gertatzen ari dena ulertzen hasten da. Bera munduan sentitzen da eta mundua sentitzen du (Alexander G., 1996).



3. irudia: deskarga postura (I).



4. irudia: deskarga postura (II).

Eutonia, beraz, tonizitatearen oreka harmoniatsua bilatzeaz arduratzen da, pertsonaren bizitzaren momentu bakoitzean etengabe jarduera eta akzioei egokituz.

Kultura eta ohitura okzidentalek artikulazioen zabaltasuna galtzea edota ez garatzea ekarri dute (besaulkiak, aulkiak, zapatak...). Baieztapen honetatik abiatuta Gerda Alexanderek **kontrol posturak** eraiki zituen. Honetarako umeen zein azpigaratutako herrietako pertsonen posturetain oinarritu zen. Posizio bakoitzetik bariante asko aurkitu daitezke norberaren gorputzaren ikerketaren bidez eta **irudimena** baliatuz, betiere, gorputzaren limiteak errespetatuz (Hemsey de Gainza, 1998).

3.3.4 Feldenkrais metodoa: Moshe Feldenkrais

Arte Martzialetan aditua zen errusiar hau, belaunean izandako haustura baten ondorioz, gorputz-metodo bat garatzen hasi zen. Medikuek errekupeazio funtzionalaren portzentaje bat baino ez zioten ziurtatzen, beraz, **bere burua sendatzen saiatu** zen (Feldenkrais, 1990).

Artikulazio bakoitza anplitude txiki eta zehatzen bidez mugiarazten ditu norberaren kontzientzia-hartzeak daukan garrantzia azpimarratuz. Modu honetan **intregazio funtzionala** izendatu duena prestatu zuen: funtzionamendu eskema berrien ikasketara bideratutako banakako sesioak. Sesio hauen bitartean maniobra ezberdinak eramaten dira aurrera, ikaslearen mugimendua bideratzeko hitza eta ukimena erabiliz. Manipulazioek, helburutzat, indibidua **keinu efikazia** handiago batetaz hornitzea dute. Ez dira pasiboak ikaslearentzako; nerbio sistema mugimendua baimentzeko antolatzen da, modu honetan, bere kabuz mugimendua egiteko bezain aktiboa dago ikaslea (Feldenkrais, 1982).

3.3.5 Rolfing: Ida Rolf

Antolatu gabeko gorputza grabitatearen eremuan aritzeko gai den orekatutako sisteman bilakatzean oinarritzen da; eremu horretako energia onartu eta eraldatuz. Giza gorputza bertikalerantz zuzentzeko nahia izan zuen Ida Rolfek, grabitateak estatikarengan izaten duen inpaktua gutxituz. Erlazio bat ezartzen du muskulu luzeraren galera eta gorputz egituraren deformazioen artean: estrukturak funtzioa gobernatzeko du (Raskin V., 1989).

3.4. Bizkarreko mina

Gizaki modernoak bere **bizi gaitasunak** progresiboki aldatzen joan da. Gutariko asko bizimodu berri hauei moldatzeko zailtasuna aitortu behar izan dugularik. Plaga kezkagarri honen erroa estresa, jarduera fisiko ezegokia eta bizi estilo sedentarioa ditugu.

Mendeko gaitza bezala izendatua izan den (Freres eta Mairlot, 2000) bizkarreko mina **gaitz mediko ohikoetariko** bat dugu (National Institute of Arthritis and Muskuloskeletal Disease, 2009) tratamendua minaren arintzean zein funtzionaltasunaren errehabilitazioan zentratzen delarik. Beti ez bada ere, kasu askotan, bizkarreko mina, **desoreka postural** batetik eratorritzen da, hau da, eserita zein zutik izaten ditugun jarrera desegokietatik eratorritakoak.

Hain dago zabalduta, kasu askotan ez zaiola behar duen garrantzi eta dedikazioa eskaintzen. Txapelketa mailako kirol munduan murgilduta egon naizen urteetan bizkarreko minaren **normalizazio** bat bizi izan dut bai nire buruarengan bai nire kideengan eta honek gaia sakonago jorrazera eraman nau.

Arratibel, Fernández del Valle eta Gomendiok burututako ikerketak (2011) nire kirol ibilbidean bizitakoa berresten du. Honetan, JFKZFko ikasleei NAAS galdetegia pasa zitzaie bizkarreko minaren inguruko osasun egoera baloratzeko asmoz (ikus 3. taula). Jende gazte eta aktiboa zela jakinda, deigarria da ikasleen artean gizonezkoen %45,5ak eta emakumezkoen %57,1ak bizkarreko mina sufritzen zutela adierazten zutela. Honetaz gain, gizonezkoen %39,4ak eta emakumezkoen %42,9ak min honek

eragindako egunerokotasunean zailtasunak izatea aitortu zuten (ikusi 4. taula). Honetarako, arrazoi posible bat ikasketetan zentratu zuten autoreek, izan ere, eskaera fisiko altua min eta ondoezen eragile izan daiteke. Edozein modutan, molestia hauen portzentaje oso altu batek ez zien inongo eragozpenik eratzen eguneroko jardueretan. Elementu hauek ez zituzten **osasunaren mugatzailetzat** hartzen, hain zuzen.

VARONES n=33					MUJERES n=14				
	Media	SD	Máx	Min		Media	SD	Máx	Min
Edad	21,2	1,0	24,0	20,0	Edad	22,2	2,4	27,0	20,0
Altura	178,5	6,6	192,0	165,0	Altura	163,5	5,8	171,0	150,0
Peso	73,5	8,3	94,0	51,1	Peso	56,4	6,3	64,0	44,0

3. Taula: laginaren ezaugarriak. Iturria: Arratibel, Fernández del Valle, Gomendio (2011).

<u>DOLOR DE ESPALDA</u>				<u>DIFICULTADES EN LA VIDA DIARIA</u>			
<u>Varones</u>	%	<u>Mujeres</u>	%	<u>Varones</u>	%	<u>Mujeres</u>	%
15 Sí	45,5	8 Sí	57,1	13 Sí	39,4	6 Sí	42,9
18 No	54,5	6 No	42,9	20 No	60,6	8 No	57,1

4. Taula: bizkarreko mina eta honek eragindako egunerokotasunean zailtasunak Iturria: Arratibel, Fernández del Valle, Gomendio (2011).

Hori dela eta, populazio gazte eta kirolariengan bizkarreko min eta haren pertzepzioaren inguruko hausnarketa egitea erabaki dugu. Honetarako, NASS Bizkarrezur Lunbarraren Galdetegia baliatu dugu. Eraitzen neurketan garrantzizko papera daukaten bi kontzeptu gehigarri jasotzen dituen: pazienteak dituen **itxaropena** eta tratamenduaren emaitzekiko **asebetetzea** (baldin eta tratamendua jaso bada). Organo egilearen izena daraman galdetegi honek **atzealdeko minen pertzepzioa** norainokoa den jakiten laguntzen digu. Bereziki, eremu **lunbarrean** zentratzen da.

Daltroy eta lagunek (1996) galdetegiaren ezaugarriak ebaluatu eta instrumentu **egokitzat** jo zuten. Gainera, galdetegiak pazienteen onartze maila altua dauka eta italiar zein alemaniar hizkuntzetan ere itzultzeak publikatu dira (Padua, Padua, Ceccarelli, Romanini eta Bondi, 2001).

Datu subjektiboek pazienteak, haien patologia, sintomak eta tratamendu potentziala hobeto ulertzeko **dimentsio garrantzitsuak** azalerratu ditzakete. Gehien erabili eta balioztatutako osasun neurtzaile orokorren artean *SF-36a* dugu (McHorney, Ware eta Raczek, 1993), zeinen bizkarreko mina duten pazienteengan emaitzak neurtzeko gaitasuna ere aztertua izan den (Taylor, Taylor, Fot eta Fogg, 1999).

NASS galdetegiaren 2.0 bertsioak komorbilidadearen inguruko itemak, ongizate orokorraren inguruko *SF-36* **osasun galdetegia**, ezaugarri sozio-demografikoak eta alde lunbarraren mina pairatzen duten pazienteentzako item espezifikoak jasotzen ditu (Sarasqueta, Gabaldon, Iza, Béland eta Paz, 2005).

Galdetegia, bizkarreko mina pairatzen duten pazienteentzako **espezifikoki** izan da diseinatu eta honek hainbat abantaila eskaintzen dizkigu: denbora tarte txikietan gertatutako aldaketa kliniko minimoekiko sentiberatasun maila handiagoa dauka, osasun maila ezberdinen arteko segregazioa egin dezake gehien mindutako pazienteengan, eta pazienteentzako ulergarriagoak diren eta profesionalekiko esangarriagoak diren galderak hartzen ditu barne (Sarasqueta, Gabaldon, Iza, Béland eta Paz, 2005).

3.5. Gizakiaren gorputz jarrera egoki eta desegokiak

Gizakion gorputza etengabeko oszilazio mugimendu batek eutsita dago. Mugimendu konstante hau gorputzaren mugimendu (masa zentroa) eta oinetatik datorkigun indarraren (presio zentroa) arteko elkarrekintzari zor zaio (Qureshi eta Shamus, 2012).

Gizakia bipedestazioan orekatu arteko prozesua luzea izan da eta **jarrera** honen emaitza dugu. Izakiaren morfologia aldatu den bitartean egitura anatomikoek ere eraldaketak jasan izan dituzte. Bizkarrezurraren kasua honen erakusle dugu, urteak aurrera joan ahala, eraldatu eta **egokitzen** joan dena (Cantó eta Jiménez, 1998). Giza bizkar hezurra bakarra da animalien munduan. Eboluzioan zehar jasandako eraldaketek hau etengabe moldatzea ekarri dute (Gagey eta Weber, 2001). Horrela, zutik bizi ahal izateko beharrari erantzunez, kokagunearen arabera zerbikalak, dortsalak, lunbarrak, sakroak edo kokzigeoak diren 33 edo 34 ornoz osaturiko bizkar-hezurra dugu (Spalteholz, 1974).



5. Irudia: bizkarrezurraren alboko bista Iturria: Castro, 2008

Aipatutako orno hauek kurbadura ezberdinak osatuz elkar lotu dira, bi kurbadura aurreko konbexitatea, (lordosi zerbikala zein lunbarra) eta bi atzealdeko konbexutasunarekin (zifosi torazikoa eta uzcornokoa) (5.Irudia). Hauen bitartez, alboko planoan erresistentzia eta malgutasuna lortzen du, zuzen egoteak emango liokeen zurruntasunak ekarriko lizkiokeen lesioak ekidinez (Castro, 2008).

Staffel ortopedista alemaniarraren aburuz (1889), gizakien postura hiru kategoriatan banatzen zen: lordotikoa, borobildua eta zapala. Gerora, autore anitzek posturaren berezitasunak eta eboluzioa aztertu dituzte eta gaur egun konpentsazio osteomuskularrean sinisten da gehien. Hau da, segmentu bakoitzak haren oreka mekanikoaren gertuko posizioan dagoenean izango da jarrera **mekanikoki normala**.

Mekanikoki normala ez den jarrera biomekanikoki normala den batean itzul daiteke. Grabitatearen indarrari kontrajarritako konpentsazio indar moduan arituko da, orekaren aldetik egonkorragoak diren erantzunak eratuz (ez direnak zertan hobeak izan). Azken hauek **nerbio sistemarentzat** ekonomikoagoak izango dira ez baitute etengabeko atentzioa eskatuko. Hala ere, erantzun hauek, **ikusuntu mekanikotik** neke handia eragiten diote organismoari, kasu batzuetan arazo larrietan bilakatu daitezkenak (Cantó eta Jiménez, 1998).

Filogenesiak **aldaketa ebolutiboak** ikertu izan ditu. Eboluzio honetan, aparatu lokomotorrak bipedestaziorako bidean egin dituen aipaturiko moldaketak progresiboak izan dira. Nahiz eta zutik mantentzeko beharrari erantzun dioten, moldaketa hauek eragin negatiboa dute gizakiaren gorputzeko hainbat ataletan, hala nola, **bizkarrezurrean** eta **kargadun artikulazio** diren belaun, aldaka edo orkatiletan (Cantó eta Jiménez, 1998). Arrazoi hau dela medio, postura eta muskulu zein artikulazioen lana edozein posizio zein egoeratan zaintzeak garrantzi handia hartzen du. Jarduera bakoitza burutzeko gorputzak eraldaketak eragin behar ditu eta.

Hau dela eta, **kontzientzia propiozeptiboa** eta **muskulu-oreka** laguntzeko beharrean enfasia egin behar dugu bi akzio hauek puntu ezberdinetako oreka mekanikoa ahalbidetzen baitute (bizkarrezurrean, pelbisa, behe atalak, gerri eskapulohumerala e.a.) Modu honetan, indibiduoari norberaren jarrera eskemaren ezaguera transmititzen diogu, honen hezkuntza posible baterako bidean.

Ikuspuntu estrukturalaz gain, bioenergetikaren ikuspuntutik begiratuta, zutikako posizioak energia handiko izakia izatera eraman du gizakia. Barne energia honen oreka mantendu ezean giharren tentsio kronikoak sor daitezke. Beste hitz batzuetan esanda, gizakiaren **oreka psikologikoak** posturan eragin zuzena duela ere esan genezake. Beraz, gizakiaren gorputz-jarreraren barne zein kanpo faktoreek dute eragina (Lowen A., 1993).

Bizkarrezurraren **konpentsazio osteomuskularra** garapen motorrerako egoera ideala da aldaerarik onartzen ez dituen prototipo bakarra baita. Ikuspuntu mekanikotik begiratuta, nerbio sistemaren etengabeko esfortzua eskatzen du eutsita mantendu ahal izateko oso hauskorra baita.

Andújar eta Santojak (1996) **postura egokiaren** kontzeptuari modu honetan egiten diote erreferentzia: bizkarrezurra zein aparatu lokomotorraren beste elementuetan gainkargarik suposatzen ez duen postura oro. Pazos eta Aragundek (2000), bestalde, tentsio eta zurruntasun minimoa duen eta eraginkortasun handiena errazten duen **postura ideala** dela baieztatzen dute. Energia gastu minimoa suposatzen du eta artikulazio funtzio eraginkorra baimendu. Alineazioa egokia izateko, karga-artikulazioetan malgutasun nahikoa behar du, koordinazio zein ongizate sentsazio on batekin lotzen dena.

4. MATERIALA ETA METODOAK

Ikerketa lan hau **era anonimoan** jasotako datuetatik eratorri da. Aurrera eramateko JFKZFko Portaera Motor Laborategian dagoen QPS-200 SPA **postura neurtzaile** den plataforma erabili da (Midot Medical Technology, Israel d.g.). Honetan jasotako zenbakizko datuak zein **NASS galdetegian** jasotako datu kualitatiboak analizatu dira. Analisi estatistikoa egiteko SAS pakete informatikoa erabili da.

4.1 SUBJEKTUAK

JFKZFeko ikasleen datuekin egin da analisia. Emakumezko zein gizonezkoak dira. Esperimentua haien fakultateko lehen urtean hasi zen, 18-23 urte bitartean zituztela. Esperimentura borondatez aurkeztu dituzte haien buruak.

4.2. SHEKEL POSTURE ANALYZER

QPS-200 SPA lau indar-plater digitaldun balantza bat da. Pisua banaketaren inguruko datu numeriko eta grafikoetaz hornitzen gaitu. Postura eta egonkortasunaren analisi eta biofeedback entrenamendurako erreminta erabilgarria da. Fisioterapeutek, Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzian adituek, neurologoek, traumatologoek eta errehabilitazio zentroek erabiltzeko moduko metodo lagungarri eta **objektiboa** da.

Aurrera eramandako testen **informazio estatistikoaz** hornitzen gaitu, izan paziente bakarra, paziente taldea edo paziente guztiak. Datuak testen data, pazienteen adina eta generoaren arabera antolatuta daude.

Pazientearen pisua banaketa, oreka eta egonkortasunaren inguruko datuak biltzen ditu eta **bi erabilera modu** eskaintzen dizkigu:

- **Test** modua: aurre-atze eta eskuin-ezker pisu banaketa jasotzen du, testaren bitartean pazientearen **presio zentroa** identifikatzen du eta **portaera dinamikoak** jasotzen ditu, hala nola, egonkortasuna, erorketa estimazioa eta kulunkatze tasa zein norabidea.

- Entrenamendu modua: denbora errealean **biofeedback entrenamendua**, oreka eta egonkortasuna kontrolatu eta egokitzeko hezten ditu pazienteak eta haien egonkortasun eta orekarekiko kontzientzia areagotzen du.

Bestalde, testen emaitzen berehalako **aurkezpen grafiko eta numerikoa** ematen ditu, pazientearen emaitzak gordetzen ditu, hauek inprimatzeko aukera ematen du, e-mailen bidezko informazioaren bidalketa ahalbidetzen du eta *excel*era esportatzeko moduko datu base batean gordetzen ditu neurketa guztiak.

Honen erabilera hiru egoera nagusitan erabiltzen da:

- Pazientearen **egoera** zein den ezagutzeko.
- Tratamendu aurretiko fasean, **tratamendua** nolakoa den determinatzeko.
- Tratamenduaren ondoren, honen **erabilgarritasun eta eragina** ezagutzeko.

(Midot Medical Technology, Israel, d.g.)

4.3 NASS GALDETEGIA

Guztira **3 item grafiko** (hirutik bederatzira arteko erantzun posibleak ematen dituztenak) eta **58 idatzizko itemek** (bakoitzak bitik seira arteko erantzun posibleak eskaintzen dituztenak) osatzen dute galdeategia. Erantzun posible guztiak **itxiak** dira. Erantzun bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio eta *excel* plantilla batera pasatu, geroago SAS programan analisia aurrera eraman ahal izateko.

4.4 SAS PAKETEA

Datuak Excel orrialdetan sartu ziren. Análisi estatistikoa aurrera eramateko SAS pakete informatikoaz baliatu gara (SAS Institute Inc., 2011). Datuak ikuskatuak izan dira errore posible guztiak ezabatzeko. Populazioaren deskribapena egiteko, jasotako datuen bariantza zein normalitate analisiak eraman dira aurrera.

5. EMAITZAK

5.1 POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA


Lan honetarako JFKZFko ikasle batzuk (n=25) bolondres aurkeztu zituzten beraien buruak. Egin den balorazioa longitudinala da, bi urteetako laginak pertsona berdinek osatzen dituzte. Lanaren ondorioengan eragina izango zutelakoan, lagin honen ezaugarriak deskribatuko ditugu:

		Gizonezkoak (n=11)				Emakumezkoak (n=14)			
		BB	DS	Max	Min	BB	DS	Max	Min
Adina	2012	18,55	0,52	19	18	19,07	1,44	23	18
	2014	21,27	0,47	22	21	21,78	1,25	25	21
Altuera	2012	178,43	7,24	195	168	164,43	6,51	175	152
	2014	179,64	6,67	195	171	164,29	6,52	175	152
Pisua	2012	71,27	6,81	83	62	56,82	6,41	67	47
	2014	75,36	8,32	92	59	57,5	6,63	67	47


5. Taula: laginaren ezaugarriak.

Pisuaren eta altueraren distribuzioak generoak asko baldintzatzen ditu; gizonezkoak altuagoak eta astunagoak baitira. Aldagai honetan aipagarriena bi generoek, pisu eta altuerari dagokiola, distribuzio zabala daukatela da.

Adinaren aldetik bolondres gehienak 18 urterekin hasi zuten esperimientua. Batek bakarrik hasi zuen esperimientua 20 urte baino gehiagorekin (6. irudia). Homogeneotasun honen arrazoia graduaren lehenengo urtea zela da, hau da, ikasle gehienak adin berarekin sartu ziren fakultatean.




6. Irudia: adinaren arabera indibiduo kopurua.




7. Irudia: altueraren arabera indibiduo kopurua. Iturria: norberak egin.

Altuera eta pisua elkarren artea erlazionatuta daude, noski, eta bi multzo nagusitan banatzen dituzte pertsonak. Oro har, gizonezkoak altuago eta astunagoak eta emakumezkoak baxuago eta arinagoak (8. irudia).



8. irudia: pisua eta altueraren arteko erlazioa.

Bestalde, adinak ez du eragin handirik altuera edo pisuarengan:



9. irudia: adina eta altueraren arteko erlazioa.

Praktikatzen diren kirolen artean badago bariazio handiagoa. Futbola da gehienetan agertzen zaigun kirola. Bestalde, praktika aniztasun handia dago subjektuen artean. Kirol edo jarduera bakarria praktikatzen duten gutxi agertzen dira, hain zuzen.

5.2 JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKASLEEN BIZKARREKO MINAREN PERTZEPZIOA

Bizkarreko minari dagokionez, NASS galdetegiak jasotzen dituen galderen artean esanguratsuenak jaso eta hiru adierazleetan sintetizatu ditugu: bizkarreko mina “bai/ez”, honek eragindako eguneroko bizitzan zailtasunak “bai/ez” eta osasun pertzepzioa “Bikaina-Oso ona/ Ona/ Eskasa-Txarra”.

Lehenengo adierazlearentzat galdetegiko 2. item grafiko eta idatzizko 15. eta 38. itemetako erantzunak jaso ditugu. Bigarren adierazlearentzat 21., 38., 42. eta 46tik 54ra arteko itemak. Azken adierazlearentzako 18. galderataz baliatu gara. Erantzun anitzeko galderak honela estandarizatu ditugu: “1” eta “2” “ez” moduan eta “3”, “4”, “5” eta “6” “bai” moduan jaso ditugu.

NASS galdetegian jasotako datuak analizatuta hurrengo adierazpenak lortu ditugu:

BIZKARREKO MINA					
		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
Bai	2012	5	45,45%	11	78,57%
	2014	6	54,55%	12	85,71%
Ez	2012	6	54,55%	3	21,43%
	2014	5	45,45%	2	14,29%

6. Taula: bizkarreko minaren datuak.

ZAILTASUNAK EGUNEROKO BIZITZAN					
		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
Bai	2012	2	18,19%	5	35,71%
	2014	3	27,27%	2	14,29%
Ez	2012	9	81,82%	9	64,29%
	2014	8	72,73%	12	85,71%

7. Taula: eguneroko bizitzan minak sortzen dituen zailtasunen datuak.

OSASUNAREN PERTZEPZIOA					
		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
Bikaina/Oso ona	2012	10	90,90%	11	78,57%
	2014	10	90,90%	10	71,43%
Ona	2012	1	9,09%	3	21,43%
	2014	1	9,09%	4	28,57%
Hala nolakoa	2012	0	0,00%	0	0,00%
	2014	0	0,00%	0	0,00%

8. Taula: osasunaren pertzepzioaren datuak.

